

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko martxoaren 26ko erabakiaren laburpena, zeinaren bitartez Gasteizko udalerrian egoitza duten turismoaren alorreko mikroenpresei eta profesionali aparteko laguntzak emateko udal programaren 2021eko berariazko deialdia onesten baita

BDNS(Identif.): 556447

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/556447>),

<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>, baita Gasteizko Udalaren webgunean ere <http://www.vitoria-gasteiz.org>.

Lehena. Xedea

Gasteizko turismoaren sektoreko mikroenpresa pribatuei laguntzea eta babes ekonomikoa ematea, dirulaguntzen bitartez, SARS-CoV-2aren hedapena geldiarazteko hartutako neurriek beren jarduerari eragin badiete.

Norgehiagoka baliatuko da laguntzak emateko prozedura gisa.

Bigarrena. Onuradunak

Pertsona fisiko eta juridikoak, beren izaera juridikoa edozein delarik ere, baldintza hauek betetzen badituzte: gehienez 10 langile izatea, gehienez ere bi milioi euroko negozio-bolumena edo balantze orokorra izatea, aurreko baldintzak betetzen ez dituzten enpresek ehuneko 25etik gorako partaidetza ez izatea bertan, turismo-jarduera Gasteizko udalerrian dutela egiaztatzea, eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafe hauetakoren batean alta emanda egotea:

- Atala 1. Taldea edo epigrafea: 681. Hotel eta moteletako ostatu-zerbitzua.
- Atala 1. Taldea edo epigrafea: 682. Hostal eta pentsioetako ostatu-zerbitzua.
- Atala 1. Taldea edo epigrafea: 683. Ostatu eta apopilo-etxeetako ostatu-zerbitzua.
- Atala 1. Taldea edo epigrafea: 684. Hotel-apartamentuetako ostatu-zerbitzua.
- Atala 1. Taldea edo epigrafea: 685. Hotelaz gaindiko egoitza turistikoak.
- Atala 1. Taldea edo epigrafea: 686. Agentzia edo enpresa antolatu baten bidez egindako apartamentu pribatuen ustiapena.
- Atala 1. Taldea edo epigrafea: 687. Kanpamentu turistikoak.
- Atala 1. Taldea edo epigrafea: 755. Bidaia-agentziak.
- Atala 1. Taldea edo epigrafea: 755.1. Beste bidaia-agentzia batzuei emandako zerbitzuak.
- Atala 1. Taldea edo epigrafea: 755.2. Bidaia-agentziek publikoari emandako zerbitzuak.
- Atala 2. Taldea edo epigrafea: 854. Biltzarrak, batzarrak eta antzekoak antolatzen adituak.

- Atala 2. Taldea edo epigrafea: 882. Turismo-gidariak.
- Atala 2. Taldea edo epigrafea: 883. Turismo gidari-interpreteak.
- Atala 1. Taldea edo epigrafea: 989. Ikuskizunarekin eta turismoarekin loturiko beste jarduera batzuk. Biltzarren antolaketa. Parkeak edo feria lekuak.
- Atala 1. Taldea edo epigrafea: 989.2. Biltzarrak, batzarrak eta antzekoak antolatzekeo zerbitzuak.

Hirugarrena. Oinarriak

2020ko abenduaren 11an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2021eko dirulaguntza-deialdiak arautzeko oinarri orokorrak 2020ko abenduaren 30eko ALHAO, 148. zenbakia, eta 2021eko martxoaren 26an, berriz, Gasteizko udalerrian egoitza duten turismoaren alorreko mikroenpresei eta profesionaleri aparteko laguntza ekonomikoak emateko 2021eko deialdiaren berriazko oinarriak. Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Balioespen-irizpideak

1. Establezimenduko edo lantokiko langile kopurua: Gehienez 10 puntu; establezimenduko edo lantokiko langile bakoitzeko 1 puntu, lanaldiaren ehunekoa edozein dela ere.
2. Merkataritza-lokalaren edukitze-erregimena: 5 punturekin baloratuko dira diruz lagundu daitekeen jarduera alokairu-erregimeneko edo indarrean dagoen hipoteka-maileguaren mendeko jabetza-erregimeneko lokal batean egiten dutela justifikatzen duten eskabideak.
3. Klean bertan dagoen merkataritza-lokalaren edukitze-erregimena: 5 punturekin baloratuko dira diruz lagundu daitekeen jarduera lur-arrasean kokatuta dagoen lokal batean egiten dutela justifikatzen duten eskabideak, baldin eta lokalak erakusleihoa badu eta merkataritza-ordutegi zehatz batean jendearentzat irekita badago. Azoketako eta merkataritza-zentro edo -galerietako establezimenduak ere hartzen ditu barne.

Bosgarrena. Zenbatekoa

Laguntza-deialdi honek 100.000,00 euroko zuzkidura du, 2021erako onetsitako udal aurrekontuko 0810.4331.489.64 Garapen lokala - Ekitaldiak erakartzea partidaren kontura; eskabidearen balorazioan lortutako puntuazio honen arabera banatuko da, enpresa bakoitzeko gehienez 2.700,00 euroko mugarekin:

- 0 puntutik 5era: 600,00 euro.
- 6 puntutik 15era: 750,00 euro.
- 16 puntutik 20ra: 900,00 euro.

Seigarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hamabost egun baliodun, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 29a

*Vitoria-Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren
Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI*